



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

**GAIA: 2017 EKITALDIKO AZKOITIKO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN
ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA**

AURREKARIAK

I.- Azkoitiko Udalbatza Plenoak, 2016ko abenduaren 28an egindako bilkuran, bestek beste, 2017ko aurrekontua hasieraz onartu zuen. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikulua xedaturikoari jarraiki, jendaurrean jarri zen, bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean - 2017ko urtarrilaren 13an 9. zkian – eta baita Udaletxeko iragarki oholean eta zabalkunde handiena duen egunkarian, hamabost eguneko epean, interesatuek erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2017ko Aurrekontu Orokorra behin betikotzat jo zen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko otsailaren 16an 33. zkian aurrekontuak kapituluka laburtuta eta baita Udaletxeko iragarki oholean, web orrian eta udaleko gardentasun atarian ere.

Aipatu espedienteak, bestek beste, Udal Langileen Aurrekontu-plantilla zeukan bere barnean, non 2017ko ekitaldirako aurreikusiriko udaleko pertsonalaren gastua justifikatu baitzen.

II.- 2017ko martxoaren 30ean egindako bilkuran Udalbatza Plenoak, bestek beste, Azkoitiko udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programaren 1. fasea hasieraz onartu zuen, baita aipatu dokumentuak eragindako aldaketak jasotzen dituzten eta 2017ko ekitaldiari dagokion Pertsonalaren Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda ere eta aipatu espedientea jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez zitzaten. Aipatu iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko apirilaren 7an 69. zenbakian argitaratu zen, baita udaletxeko iragarki-oholean, udalaren webgunean eta *Gipuzkoako Atarian* ere.

Informazio publikoko epea amaituta, alegaziorik aurkeztu ez zenez, alde batetik Azkoitiko udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programa-Enplegu Planaren 1. fasea eta bestetik aipatu Planak jasotako neurriek eta ekintzek eragindako aldaketekin udaleko 2017 ekitaldiko Pertsonalaren Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda ere behin betikotzat onartutzat jo ziren, horri dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko maiatzaren 18an 94. zenbakian argitaratu zelarik, baita udaletxeko iragarkia-oholean, udalaren web orrian eta gardentasun atarian ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

III.- Bestalde, 2017ko maiatzaren 31n Udalbatza Plenoak egindako bilkuran, bestek beste, Azkoitiko udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programaren 2. fasea hasieraz onartu zuen, baita aipatu dokumentuak eragindako aldaketak jasotzen dituzten 2017ko ekitaldiari dagokion Pertsonalaren Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda ere eta aipatu espedientea jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez zituzten. Aipatu iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko ekainaren 9an 110. zenbakian argitaratu zen, baita udaletxeko iragarki-oholean, udalaren webgunean eta *Gipuzkoako Atarian* ere.

Informazio publikoko epea 2017ko ekainaren 30ean amaitu da eta alegaziorik aurkeztu ez denez, alde batetik Azkoitiko udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programa-Enplegu Planaren 2. fasea eta bestetik aipatu Planak jasotako neurriek eta ekintzek eragindako aldaketekin udaleko 2017 ekitaldiko Pertsonalaren Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda ere behin betikotzat onartutzat jo dira, dagokion iragarkia argitaratzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera igorri delarik.

IV.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programako 1. eta 2. fasean onarturik, udaleko Lanpostuen Zerrendan hainbat lanpostu sortu dira – Biltegiko Arduraduna/Zeregin anitzetako ofiziala, Agente/Jakinarazlea, Bulego teknikoa/Idazkaritza Administraria, Gizarte Ongizate Administraria eta Artxibozaina – horiek beteko dituzten zereginak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari horiei dagokien hizkuntza eskakizuna ezartzearen inguruko txostena eman zezan adostu zelarik.

Hori horrela, udaleko Euskara Zerbitzuari aipatu lanpostu horiei hizkuntza eskakizuna ezartzeko proposamena egin eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari igorri zieziaion eskatu zitzaion, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 23. artikulua xedaturikoari jarraiki, erakunde horrek zegokion txostena eman zezan errekerituz.

Udaleko Euskara Zerbitzuak 2017ko ekainaren 15ean 1.845 Erregistroko irteera zenbakiarekin igorritako gutun-eskaerari, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendariak 2017ko ekainaren 22an 235113 Erregistroko irteera zenbakiarekin igorri zion udal honetako Alkate-Udalburuari aipatu lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei dagokien txostena, ondokoa adierazi duelarik:

“1.- Proposatutako hizkuntza-eskakizunei dagokienez:

Hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko eta bertan lan egiteko beharrezkoa den euskarazko hizkuntza-gaitasun maila zehazten du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua adierazten duen bezala. Beraz, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna ezarri behar da lanpostuak betetzen dituen funtzio edota zereginak kontuan izanda.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Sortzekoak diren lanpostuak:

Lanpostuaren izena	Proposatutako HE
Agente-Jakinarezlea	2. HE
Artxibozaina	3. HE
Biltegiko arduraduna/zeregin anitzetako ofiziala	2. HE
Bulego teknikoa-Idazkaritza Administraria	3. HE
Gizarte Ongizatea Administraria	3. HE

Erakunde horretatik bidalitako dokumentazioan sortuko diren lanpostuen funtzioak ikusirik eta kontuan izanik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 7. artikulua xedatutakoa, **Zuzendaritza honek ez die eragozpenik ikusten proposatutako hizkuntza-eskakizunei.**

...

4.- Derrigortasun-datatzat lanpostuak onartzen direnekoa proposatzeari dagokionez:

Derrigortasun-data ezartzerakoan, 86/1997 Dekretuaren 22. artikulua bigarren idatz-zatian xedatutakoa izan behar da kontuan: "Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten dotazioetan, dagokion plangintzaldiaren barruan jarriko da derrigortasun-data. Aintzakotzat hartuko da dotazio horietako titularrek denbora horretan benetan maila horretara iristeko modua badutela".

Ondorioz, lanpostua hutsik badago edo lanpostuaren jabeak dagokion Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badu edo Hizkuntza-eskakizuna egiaztatetik salbuetsita badago, igarotako derrigortasun data ipini ahal izango da, eta halako kasuetarako horixe da Zuzendaritza honen ohiko gomendioa.

Lanpostuei derrigortasun-data erabakia hartzen den eguneko jarriko zaiela ikusirik, proposamena arestian aipatutako xedapenarekin eta Zuzendaritza honek egin ohi duen gomendioarekin bat dator.

..."

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendariak izenpeturiko aginduzko txostena aintzat harturik, Euskara Zerbitzutik 2017ko uztailaren 12an egingo den Udalbatza Plenoaren ezohiko bilkurarako ondoko irizpena eman da, Ogasuna, Barne



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen ekonomikoa eta Merkataritza Batzorde Informatiboan:

“LEHENA.- Biltegiko arduraduna/Zeregin Anitzetako Ofiziala eta Ajente/Jakinarazlea lanpostuei 2. hizkuntza hizkuntza ezartzea eta Bulego Teknikoa/Idazkaritza Administraria, Artxibozaina eta Gizarte Ongizate Administraria lanpostuei, berriz, 3. hizkuntza hizkuntza. Derrigortasun datari dagokionez, kasu guztietan Udalbatza Osoak hizkuntza eskakizuna ezartzeko erabakia hartzen duen bilkurako data (urtea/hilabetea/eguna) ezartzea.

BIGARRENA.- Hizkuntza Politikarako Sailordetzari eta Azkoitiko udaleko langileen ordezkariari aldaketen berri jakinaraztea.”

Hori horrela, aipatu irizpenean jasotakoaren arabera, aipatu lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunari eta horien derrigortasun datari dagokionean, ondoko betekizunak ezartzea proposatu da eta horrekin batera, 2017ko Lanpostuen Zerrenda aldatzeko jardunbidea abian jartzea:

Lanpostuaren izena	Proposatutako HE	Derrigortasun data
Agente-Jakinarazlea	2. HE	2017/07/12
Artxibozaina	3. HE	2017/07/12
Biltegiko arduraduna/zeregin anitzetako ofiziala	2. HE	2017/07/12
Bulego teknikoa-Idazkaritza Administraria	3. HE	2017/07/12
Gizarte Ongizatea Administraria	3. HE	2017/07/12

V.- Bestalde, 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legeak - Estatuko Aldizkari Ofizialean 2017ko ekainaren 28an 153. zkian argitaratua - 2017ko ekainaren 29az geroztik indarrean dagoenak, 18. artikulua Dos. Atalean xedaturikoa aintzat hartuta, ordainsarien igoera ahalbidetzen du, azken urteetan lege, %1eko mugarekin, horrek udaleko Lanpostuen Zerrendaren ordainsariei dagokien atalaren aldaketa dakarrelarik.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- LANPOSTUEN ZERRENDAN TXERTATUKO DIREN ALDAKETAK



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

I.1.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK TXERTATZEA ETA DERRIGORTASUN DATA EZARTZEA

Udaleko Lanpostuen Zerrendan sorturiko bost lanpostu berriei ezartzea proposaturiko hizkuntza eskakizunak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bigarren atalburuan xedaturiko irizpideak aintzat hartuta proposatu dira eta derrigortasun datak zehaztekoa berriz 86/1997 Dekretuaren 20. artikulua eta ondorengoek finkaturiko irizpideen arabera.

I.2.- ORDAINSARIEN IGOERA

2017ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legeak III. Tituluan, Pertsonalaren gastuak arautzen dituen lege xedapenetan ezarritako arauak, ordainsarien igoera orokorra (%1eko mugarekin) ahalbidetzen dute, ondokoaren arabera:

Artículo 18. Bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica en materia de gastos de personal al servicio del sector público.

...

Dos. En el año 2017, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2016, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Tres. Las Administraciones, entidades y sociedades a que se refiere el apartado uno de este artículo no podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior y siempre que no se produzca incremento de la masa salarial, en los términos que establece la presente Ley, las citadas Administraciones, entidades y sociedades podrán realizar contratos de seguro colectivo que incluyan la cobertura de contingencias distintas a la de jubilación. Asimismo, y siempre que no se produzca incremento de la masa salarial, en los términos que establece la presente Ley, podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivo que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación, siempre que los citados planes o contratos de seguro hubieran sido suscritos con anterioridad al 31 de diciembre de 2011.

Cuatro. La masa salarial del personal laboral, que se incrementará en el porcentaje máximo previsto en el apartado dos de este artículo, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales y los gastos de acción social devengados por dicho personal en el año anterior, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación.

Se exceptúan, en todo caso:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.

A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales de los trabajadores.

Estos gastos de acción social, en términos globales, no podrán experimentar ningún incremento en 2017 respecto a los del año 2016.

Cinco. 1. Los funcionarios a los que resulta de aplicación el artículo 76 del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre (en adelante, EBEP), e incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de medidas para la reforma de la Función Pública, en los términos de la disposición final cuarta del EBEP o de las Leyes de Función Pública dictadas en desarrollo de aquél, percibirán, en concepto de sueldo y trienios, en las nóminas ordinarias de enero a diciembre de 2017, las cuantías referidas a doce mensualidades que se recogen a continuación:

Grupo/Subgrupo EBEP	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	13.576,32	522,24
A2	11.739,12	425,76
B . .	10.261,56	373,68
C1	8.814,12	322,20
C2	7.335,72	219,24
E (Ley 30/1984) y Agrupaciones Profesionales (EBEP)	6.714,00	165,00

2. Los funcionarios a que se refiere el punto anterior percibirán, en cada una de las pagas extraordinarias de los meses de junio y diciembre en el año 2017, en concepto de sueldo y trienios, los importes que se recogen a continuación:

Grupo/Subgrupo EBEP	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	698,13	26,85
A2	713,45	25,87
B .	739,07	26,92
C1	634,82	23,19
C2	605,73	18,09
E (Ley 30/1984) y Agrupaciones Profesionales	559,50	13,75



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

(EBEP)		
--------	--	--

Seis. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, las retribuciones a percibir por los funcionarios públicos que hasta la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el año 2007 han venido referenciadas a los grupos de titulación previstos en el artículo 25 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, están referenciadas a los grupos y subgrupos de clasificación profesional establecidos en el artículo 76 y disposición transitoria tercera del EBEP, sin experimentar otras variaciones que las derivadas de esta Ley. Las equivalencias entre ambos sistemas de clasificación son las siguientes:

Grupo A Ley 30/1984: Subgrupo A1 EBEP.

Grupo B Ley 30/1984: Subgrupo A2 EBEP.

Grupo C Ley 30/1984: Subgrupo C1 EBEP.

Grupo D Ley 30/1984: Subgrupo C2 EBEP.

Grupo E Ley 30/1984: Agrupaciones profesionales EBEP.

Siete. Lo dispuesto en los apartados anteriores debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

Ocho. Los acuerdos, convenios o pactos que impliquen crecimientos retributivos superiores a los fijados en el apartado dos deberán experimentar la oportuna adecuación, deviniendo inaplicables las cláusulas que se opondan al mismo.

Nueve. Las referencias relativas a retribuciones contenidas en esta Ley se entienden siempre hechas a retribuciones íntegras.

Enplegatuen Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 23. eta 24. artikuluek xedaturikoarekin bat, oinarrizko ordainsariak (soldata eta antzinatasunari dagokionak), urtero Estatuko Aurrekontu Orokorrek onartzeko Legeek finkatzen dituzte eta osagarriak aldiz Herri Administrazio bakoitzari dagokion Legeek.

Zentzu berean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legearen 19. artikulua, langileen lansariak arautzen dituenak ere 2016 ekitaldiarekiko, ordainsarien igoera aurreikusten du, ondokoaren arabera:

19. artikulua.– Langileen lansariak.

1.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, 2017. urtean, lan-kontratukoak ez diren



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko lansariak % 1eko igoera izan ahalko dute, behin-behinean eta aldi baterako, 2016ko ekitaldian ezarritakoan aldean. Lansari horiek, betiere, homogeneousotasunaren arabera kalkulatu dira, eraketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzinateari dagokienez, bai lanaldi-arabideari dagokienez.

...

4.– 1. paragrafoan zehaztutakoa gorabehera, lanpostuaren edukian izandako eraldaketengatik, programa bakoitzari atxikitako langile kopuruan izandako aldaketengatik edo programa horiei ezarritako helburuen betetze-mailarengatik, lansari osagarrietan berariaz eta salbuespenez ezinbestean egin beharreko egokitzapenak gauzatu ahal izango dira. Era berean, zehaztutakoa gorabehera, lanpostuak antolatze eta sailkatze sistemak aplikatu ahal izango dira, eta sistema horiek aplikatzekoak izango zaizkie transferentzien bitartez euskal administrazio publikoetan sartzen diren edo sartuak diren langileei ere; era berean, sektoreetako berezitasun batzuk egokitu ahal izango dira, ordainsari-kontzeptuak ordainsarien egitura berriaren arabera periodifikatzeagatik, berregituratzeagatik edo egokitzeagatik.

5.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorrituz, lan-kontratukoak ez diren langileek jaso beharreko oinarrizko lansariak izango dira aurrekontu-ekitaldian zehar indarrean daudenak, administrazio publikoetako funtzionarioen oinarrizko lansarien erregimena erregulatzen duten arauak jarraituz.

...

7.– Aparteko ordainsariak (urtean bi izango dira, bata ekainean eta bestea abenduan) jasoko dira artikuluan honen 5. apartatuak zehaztutako soldataren eta hirurtekoaren kopuruaren arabera, eta hileko bati dagokion destinoko osagarriaren eta berariazko osagarriaren edo baliokidea den kontzeptuaren arabera, betiere, paragrafo hau aplikatu ahal zaien kolektiboaren ordainsari-arabideak dioena kontuan hartuta.

8.– Lansari osagarriak % 1eko igoera izan ahal izango dute, behin-behinean eta aldi baterako; hala ere, aldaketa batzuk egin ahal izango dira programa bakoitzari atxikitako langile kopuruaren aldaketaren ondorioz, programari ezarritako helburuen betetze-mailaren ondorioz eta programa aplikatzearen banakako emaitzen ondorioz. Era berean, lege hau indarrean sartu aurretik hasitako ebaluazio-prozesuak amaitu ahal izango dira, baldin eta finantziario egokia badute eta Gobernu Kontseiluak baimentzen baditu, dagozkien sektoreetan alde aurretik adostuta.

9.– Aurreko apartatuaren aurreikusitako gehikuntzaren zenbateko globala osagarri iragankor gisa ordainduko da, hala dagokionean, harik eta administrazio publikoetako funtzionarioen 2017ko ekitaldirako oinarrizko ordainsariak erabaki arte. Oinarrizko lansari horiek egokitzen direnean, Gobernu Kontseiluak zehaztutako destino-osagarriaren (uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Funtzio Publikoari buruzkoak, 79.1.a artikuluan arautuaren) urteko munta eta gainerako lansari osagarri guztia.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

...

12.– Guztizko lansarien aldaketak homogeneousotasunaren arabera kalkulatu dira eraketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzinatasunari dagokienez, bai lanaldi-motari, lanari eta gainerako lan-baldintzei dagokienez.

...

Bestalde, aipatzekoa da, Lege horrek, artikuluko horren, 19.ren, 14. atalak goikargudunen ordainsarien igoera ere xedatzen duela eta 15. atalak behin-behineko langileenak:

14.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitakoan 2017ko ekitaldirako lansariak % 1eko igoera izan ahal izango dute, behin-behinean eta aldi baterako, 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntzari kalterik egin gabe.

15.– Sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe, behin-behineko langileen lansariak % 1eko igoera izan ahal izango dute, behin-behinean eta aldi baterako, 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden lansarien aldean, antzinatasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe, eta, betiere, beren lansariak erreferentziatuta dauden kategoriari dagokion diru kopuru osoa errespetatuta.

16.– *Osagarri pertsonalek, aldi baterako osagarriak eta zerbitzuagatik kalte-ordainek arau berariazkoak izango dituzte. Kalte-ordain horiek ez dute % 1etik gorako gehikuntzarik eduki ahal izango beren banakako zenbatekoetan, 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden aldean.*

II.- LANPOSTUEN BETEKIZUNEN ALDAKETA LANPOSTUEN ZERRENDAN

Azkoitiko Udalbatza Plenoak 2017ko ekitaldirako onarturiko Langileen Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda eta horien aldaketak, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen Legean eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean Lanpostuen Zerrendak arautzen dituzten lege xedapenekin bat etorritik onartu ziren.

Alde batetik, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programako 1. eta 2. fasetan sorturiko aipatu lanpostu berriei ezarri beharreko hizkuntza irizpideak eta derrigortasun datak eta bestetik, ordainsarien igoera dela-eta, ordainsariei – osagarriak - dagozkionak, lanpostuen betekizun berriak izaki, Lanpostuen Zerrendaren aldaketa dakartela eta aldaketa hori onartzeko ondoko lege xedapenak aintzat hartuko dira:

1.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 74. artikuluko xedatutakoaren arabera, non Herri Administrazioek beren lanpostuak antolatzeke, lanpostuen zerrendak edota bestelako antolakuntza-tresnak erabiliko dituzten xedatzen duen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aipatu zerrendek gutxienez ondoko baldintzak jaso behar dituztela xedatzen du:

- Lanpostuaren izena
- Lanpostuaren sailkapen profesionala
- Atxikiriko eskalak
- Hornitze-motak
- Ordainsari osagarriak

Aipatu Legearen 75., 76. eta 77. artikuluek, pertsonal funtzionario zein lan-itunpeko pertsonala sailkatzeko irizpideak arautzen dituzte.

2.- Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. eta hurrengo artikuluek, Lanpostuen Zerrendak arautzen dituzte, honako hauen arabera:

- Lanpostuaren Zerrendaren xedeak honako hauek dira: herri-administrazioetako egiturak arrazionalizatu, pertsonal baliabideak zehaztu, lanpostuak betetzeko baldintzak xedatu eta azken horiek sailkatu.
- Lanpostuen Zerrendak finko izaera duten eta aurrekontuan ezarri diren lanpostu guztiak jaso behar ditu, funtzionarioentzat, lan-itunpeko langileentzat eta pertsonal ebentualentzat gordetakoak bereiziz.
- Gutxienez honako datuok jaso behar ditu: lanpostuaren izena, Departamendua, dedikazio-erregimena, betetzeko **baldintzak – hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data** - , sailkapen profesionaleko taldea, eskala, azpieskala edo kategoria, eta funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan gainera, **osagarriak (destinokoa zein berariazkoa)**, eta hornitze-mota zehaztuko dira.
- **Halaber, Lege horren 18. artikulua, egitura organikoan egin daitezkeen aldaketak onartzeak, aldi berean, horiei dagozkien lanpostuen zerrendak ere aldatzea eskatuko duela xedatzen du.** Lanpostuen zerrenda etengabe eguneratu behar izaten da, berezkoa duen izaera dinamikoagatik, eta une oro Administrazioen antolaketa-beharren benetako adierazpen izan dadin.

III.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN IZAPIDETZEA

Lanpostuen Zerrendaren aldaketaren izapidetzea ondoko legedia aintzat harturik egin dela:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua xedaturikoaren arabera.
- Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak jasotzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126. eta 127. artikuluek xedaturikoaren arabera, Aurrekontuak onartzeko izapide berbera xedatzen du



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lanpostuen Zerrendaren kasuan ere eta **Lege horren 126.3 artikulua** xedatzen du, **Lanpostuen Zerrendaren aldaketa egiteko, Aurrekontuaren aldaketa onartzeko erabiliko den izapide berberaren arabera egingo dela.**

- **Publizitateari dagokionean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikulua, Lanpostuen Zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko betebeharra xedatzen du; horren aldaketaren kasuan ere, izapide bera erabili behar da.**

IV.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONESTEKO ORGANO ESKUDUNA

Lanpostuen Zerrendako betekizunen aldaketa dela-eta – sorturiko lanpostu berriei hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezartzea eta ordainsarien igoera dela-eta, horiek egokitzea -, Azkoitiko udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa ebazteko organo eskuduna, **Udalbatza Plenoa** da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua i) atalean xedaturikoarekin bat.

Azkoitiko Udaleko Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritzako Batzorde Informatiboak irizpen hau aztertu zuen 2017ko uztailaren 6an egindako bilkuran, eta uztailaren 19ko bilkuran bozkatu zuen, ondoko emaitzarekin :

Aldeko botoak: Ana Azkoitia, Javier Zubizarreta, Miguel Angel Bastida, Sonia Vazquez, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Igoa.

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritzako Batzorde Informatiboak, aho batez:

IRIZPENA

LEHENA.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programako 1. eta 2. fasean onarturik, udaleko Lanpostuen Zerrendan sortu diren hainbat lanposturi, hizkuntza eskakizunari eta horien derrigortasun datari dagokionean, ondoko **betekizunak** ezartzea:

Lanpostuaren izena	Proposatutako HE	Derrigortasun data
Agente-Jakinarezlea	2. HE	2017/07/12
Artxibozaina	3. HE	2017/07/12
Biltegiko arduraduna/zeregin	2. HE	2017/07/12



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

anitzetako ofiziala		
Bulego teknikoa-Idazkaritza Administraria	3. HE	2017/07/12
Gizarte Ongizatea Administraria	3. HE	2017/07/12

BIGARRENA.- 2017 ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legearen 19. artikulua ahalbidetzen duten, **udal langileen eta korporazioko kideen %1eko ordainsarien igoera onestea, 2017ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginez.**

HIRUGARRENA.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2017ko Programako 1. eta 2. fasetan sorturiko aipatu lanpostu berriei ezarri beharreko hizkuntza irizpideak eta derrigortasun datak eta bestetik, ordainsarien igoera dela-eta, ordainsariei – osagarriei - dagozkionak, lanpostuen betekizun berriak izaki, Lanpostuen Zerrendaren aldaketa dakartenez, **2017ko ekitaldiko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa hasieraz onartzea.**

LAUGARRENA.- Espedientea informazio publikoan jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean, 15 egun laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuaren 169. artikulua xedaturikoaren arabera, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

BOSGARRENA.- Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat ematea, eta aurkeztuko balitz, Udalbatza-Plenoak hilabeteko epea izango du horiei erantzuteko.

SEIGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Udaleko gardentasun atarian argitaratzea, eta udaleko langileen ordezkariak jakinaraztea.

Azkoitia, 2017ko uztailaren 20an.
Idazkariak